





LAN ARLOAN



AURKIBIDEA

1. SARRERA	_____	1
2. ANALISIA	_____	2
3. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK	_____	10



SARRERA

zertarako

10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa. 16.2 art. Enpresek genero-ikuspegia txertatuko dute beren lantokietako espazioen antolaketan, langile guztientzat seguruak eta irisgarriak izan daitezzen.

BAI SAREAKo 2023-2024 Ekintza Planaren 3. neurria. Espazioen dimentsio fisikoa hirigintza feministaren ikuspegitik berrikusi.

Agindu hauei heltzeko eta **laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko** bidean aurrera egiteko, Espazio Seguruak Taldeak tresna bat prestatu dugu. Batetik, galdera sorta baten bidez, gure erakundeen espazio fisikoak eta birtualak hirigintza feministaren ikuspegitik aztertzeko aukera ematen digu, eta, bestetik, erakunde batzuek egindako ekintzen bidez, martxan jarri ditzakegun esku-hartzeak inspiratzen gaitu.

Diagnostikoari dagokionez, diziplina honetako metodologia ezagunenetako bat, puntu kritikoen mapa, egokitu eta lan-eremura ekarri dugu.



zer da

Hirigintza feminista: ikuspegi honek aitortzen du espazioak ez direla neutralak generoaren ikuspegitik, eta emakumeek sarritan oztopo eta erronka espezifikoek aurre egiten dietela hiri-espazioan.

Puntu kritikoen mapa: metodologia honen bidez, emakumeek segurtasunarekin, mugikortasunarekin eta irisgarritasunarekin zerikusia duten arrisku espezifikoak ematen diren lekuak identifikatu ahal izango dira.

ANALISIA

Tresnan **aztertze**ko **6 gune identifikatu ditugu**, BAI SAREA osatzen duten erakunde bakoitzarentzat egokiagoak edo desegokiagoak izango direnak. Asko eta askotarikoak gara, eta, beraz, jarduera eta leku desberdinei buruz galdetzen saiatu gara, baina espazio libre bat ere gehitu dugu, enpresek besteren bat identifikatzeko aukera izan dezaten.

non

1. **KOKAPENA ETA SARBIDEAK:** erakundea dagoen eremua edo lekua, oinezkoentzako bideak, berezko aparkalekuak...
2. **HARRERA ETA LEKUALDATZEAK:** informazioa eta sarrerako gunea, sarrerako garita, korridoreak, eskailerak eta igogailuak...
3. **KOMUNAK ETA ALDAGELAK:** higiene pertsonaleko espazioak.
4. **GELAK:** bulegoak, ikasgelak, bilera-gelak, aretoak, jantokiak eta officeak, logelak...
5. **EKOIZPENA, ZERBITZUAK ETA BILTEGIRATZEA:** tailerrak, laborategiak, biltegiak, garraioak...
6. **TOPAGUNE BIRTUALAK:** webguneak, intraneta, online bilerak eta prestakuntzak, WhatsApp taldeak...
7. **BESTELAKO ESPAZIOAK**



aztertze


jarraibideak

Gune bakoitzerako **galdera-sorta** bat prestatu dugu, Anne Michauden definitutako **segurtasun-printzipioak** kontuan hartuta (Guide d 'aménagement pour un environnement urbain sécuritaire de la Ville de Montréal. 2001eko Femmes et Villes programa) eta identifikatutako indarguneak eta puntu kritikoak jasotzeko **1etik 4ra bitarteko balorazio-eskala**. Praktikarekin, BAI SAREAn, ohartu gara azterketa hau egiteko eraginkorrena hausnarketa Berdintasun Batzordeak eta Segurtasun eta Higiene Batzordeak gidatzea dela, egitura horietan parekotasuna bermatuz eta emakumeek parte hartzeko espazio osagarriak ahalbidetuz, haien bizipenak eta pertzepzioak jaso ahal izateko. Era berean, garrantzitsua da lanpostu, zentro, zerbitzu eta abarretako pertsonak ordezkaturik egotea. Halaber, azterketa askoz ere esanguratsuagoa da instalazioak berrikusteko bisitak egiten direnean.

1. KOKAPENA ETA SARBIDEAK

1. Erakundea kokatuta dagoen eremuan, egunez zein gauez jendea ibiltzen al da? asteko egun guztietan? emakumeek parte hartzen al dute espazio horietan?
2. Argiztapenak edozein ordutan ikusteko eta ikusia izateko aukera ematen du?
3. Ba al dago ohiko garraio publikorik? geltokiak ikusgarriak eta irisgarriak dira?
4. Ba al dago oinezkoentzako sarbide zuzenik? ba al dago emakumeek saihesten duten ibilbiderik?
5. Ba al dago berezko aparkalekurik? laguntza-botoiak edo zaintza-garitak dituzte?
6. Sarrerak eta irteerak behar bezala seinaleztatuta al daude?
7. Sartzeko eta irteteko aukera bat baino gehiago dago? ba al da emakumeek saihesten duten baten bat?
8. Sarreran ba al dago bazterrak sortu eta elkar ikustea edo entzutea oztopatzen duen hormarik, paretarik, zutaberik...?
9. Ba al dago ikuspena sustatzen duen ate eta/edo horma gardenik, ispilurik...?
10. Harreratik sarrera ikus daiteke?

Gutziz segurua eta irisgarria




Batere segurua eta irisgarria

2. HARRERA ETA LEKUALDATZEAK

1. Harrera gainerako geletatik isolatuta dago?
2. Ba al dago bazterrak sortu eta elkar ikustea edo entzutea oztopatzen duen zutaberik, altzaririk, landaririk...?
3. Harrerak ba al du eremu pribatu baterako sarbiderik? eta irteera bat baino gehiago?
4. Ba al dago laguntza-botoirik?
5. Nolakoa da mostradorea? langileak agerian uzten ditu?
6. Norabideak behar bezala seinaleztatuta al daude?
7. Ba al dago ibilbideen alternatibarik? ba al dago emakumeen saihesten duten ibilbiderik?
8. Zoruak, eskailera-mailak... egokiak al dira oinetako mota guztietarako?
9. Ba al dago ikuspena sustatzen duen ate eta/edo horma gardenik, ispilurik eskailburuetan eta igogailuetan...?
10. Igogailuek ba al dute erosotasuna ahalbidetzen duen espazio nahikorik?

Guztiz segurua eta irisgarria




Batere segurua eta irisgarria

3. KOMUNAK ETA ALDAGELAK

1. Non daude komunak eta aldagelak? irisgarriak al dira langile guztientzat?
2. Komunak erakundearenak dira edo beste erakunde batzuekin partekatzen dira? nahikoa daude?
3. Komunak eta aldagelek kontuan hartzen al dituzte emakumeen, gizonen eta pertsona ez-bitarren errealitate eta premia desberdinak? ikonoek, izenak, koloreak... behar bezala jartzen dute agerian hori?
4. Komunak eta aldagelak banakoak edo komunak dira?
5. Banakako komunak konketa al dute?
6. Komunetako eta aldageletako ateek espazio erdi irekiak uzten dituzte?
7. Ateeke sarraila eta kisketa eraginkorrak al dituzte? ba al dago kisketarekin duen armairurik?
8. Ba al dago emakumeentzako higienarako produkturik?
9. Ba al dago laguntza-langileentzako edo azpikontratatuentzako, adibidez garbiketako langileentzako, aldagelarik?
10. Ba al dago leku nahikorik? biltegiratzeko edo beste erabilera batzuetarako erabiltzen dira?

Gutziz segurua eta irisgarria




Batere segurua eta irisgarria

4. GELAK

1. Aulkien eta mahaien banaketa zabala al da? korridore estuak edo eremu isolatuak sortzen al dira?
2. Prestakuntza geletan, auditoriumetan... publikoaren aulkiak edo eserlekuak antolatzeko moduak ibilbide alternatiboak egotea ahalbidetzen du?
3. Altzarien orientazioak sarrera eta irteera ikusteko aukera ematen du?
4. Ba al dago ikuspena errazten duen horma edo aterik?
5. Ba al dago ikusteko eta entzuteko leihorik?
6. Erraza al da irtetea? irteera bat baino gehiago al dago?
7. Ba al dago gai pertsonalak lantzeko gune pribaturik?
8. Zer irizpideren arabera banatzen dira gelak, bulegoak...?
9. Altzariak eta klimatizazioa morfologia, janzkera... desberdinetarako pentsatuta daude?
10. Emakumeen presentzia dago?

Guztiz segurua eta irisgarria




Batere segurua eta irisgarria

5. EKOIZPENA, ZERBITZUAK ETA BILTEGIRATZEA

1. Espazioaren antolamenduak puntuitsuak sortzen ditu?
2. Apalategiek, panelek... eremu isolatuak eta alternatibarik gabekoak ibilbideak sortzen dituzte?
3. Ba al dago zehaztutako pasagunerik eta nahikoa leku duenik?
4. Zoruak, eskailera-mailak... egokiak al dira oinetako mota guztietarako?
5. Apalategiak, apalak... irisgarriak al dira altuera desberdinetako pertsonentzat?
6. Arropak edo janzerak elkar ezagutzeko aukera ematen du?
7. Ba al dago laguntza-botoirik?
8. Ba al dago segurtasun-mekanismoak bakarka ematen diren zerbitzuetarako?
9. Argiztapenak edozein ordutan ikusteko eta ikusia izateko aukera ematen du?
10. Emakumeen presentzia dago?

Gutziz segurua eta irisgarria




Batere segurua eta irisgarria

6. TOPAGUNE BIRTUALAK

1. ¿Los perfiles de espacios web, intranet... incluyen una foto que sirva para identificar a las personas?
2. ¿Las personas convocadas conocen de antemano quiénes participarán en las sesiones? ¿al inicio de las mismas se realiza una ronda de presentación?
3. ¿Quiénes participan en los foros suelen tener la cámara encendida y se identifican con nombre, apellidos y nombre de la entidad?
4. ¿Es habitual reenviar enlaces para participar en formaciones u otro tipo de eventos a personas ajenas o no convocadas?
5. ¿Es frecuente la presencia de personas ajenas compartiendo espacio con las convocadas, sin que se les vea?
6. ¿Se pide permiso para grabar, sacar fotos...?
7. ¿Es habitual que las formaciones se graben de forma individual sin permiso expreso?
8. ¿Cualquiera puede silenciar la voz del resto de participantes?
9. ¿Están habilitados los chats individuales?
10. ¿El uso de los grupos de WhatsApp de la empresa se limita a contenidos profesionales?

Gutziz segurua eta irisgarria




Batere segurua eta irisgarria

7. BESTELAKO ESPAZIOAK


Atal honetan, zure lanean garrantzitsuak diren eta tresnan kontuan hartzen ez diren beste espazio batzuk azter ditzakezu:

Guztiz segurua eta irisgarria



Batere segurua eta irisgarria

ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK



espazio seguruak lortzeko bide posibleak

Puntu kritikoak identifikatu ostean eta beraz, diagnostiko-fasea amaitu ondoren, esku hartzeko unea iritsi da. **BAI SAREAn** badakigu ez dagoela erakunde guztiak espazio seguru bihurtzeko balio duen ekintza magiko eta bateratu bakarra, baina hausnarketa sakon bat egin ondoren, **gure lantokietan egin daitezkeen esku-hartzeak partekatuz eta hausnarketa sakon bat egin ondoren**, hirigintza feministak markatutako bideari jarraitzea erabaki dugu, dagoeneko hainbat hiri eta herritan esperientzia ugari pilatzen baititu.

Lehenengo urratsa espazioen berrikuspenean identifikatutako **puntu kritikoak murrizteko eta/edo ezabatzeko esku hartzea** izango litzateke. Ondoren, hirigintza feministaren bideak **begirada zabalago batekin pentsatzera garamatza, aurretik identifikatutako puntu kritikoak errepika ez daitezen**. Bigarren maila honetan, abiapuntuan egiten diren esku-hartzeek ari gara, sakonago hausnartzen baitute zein erakunde mota nahi dugun.

Bide horri jarraituz, jarraian proposamen inspiratzaile sorta bat dago; **BAI SAREako zenbait erakundek martxan jarri ditugun praktikak dira**. Tresna hau erabiltzerakoan, ohartu gara aldaketek ez dutela beti obra edota inbertsio handirik ekarri behar; horregatik, edozein erakundetan errepika daitezkeen askotariko topa daitezke.

1. KOKAPENA ETA SARBIDEAK

- Espazio eta txoko kritikoetan ikusgarritasuna sustatu, sarbideetan ispiluak jarriz.
 - Kanpoaldean sarrera nagusia identifikatzeko kartel txikiak jarri.
-
- Bulego berri baterako kokapena bilatzekoan, garraio publikoa eta pertsonen ohiko joan-etorria egotea irizpidetzat hartu.
 - “Berdintasunarekin konprometitutako eta indarkeriarik gabeko enpresa” dioen kartel bat jarri.

2. HARRERA ETA LEKUALDATZEAK

- Mostradorea goitik behera estali.
 - Jende asko ez dabilen korridore batean erakundearen berdintasun-ibilbidearen eta sektoreko emakume erreferenteen inguruko mural bat egin.
-
- Autodefentsa feministako prestakuntza harrerako langileentzat.
 - Pasabideetan eroso sentitzeko nahikoa leku dagoela ziurtatu.
 - Harrera beste lanpostu batzuetatik gertu kokatu.

3. KOMUNAK ETA ALDAGELAK

- Komun bakarra dagoenean erabilera-arauak ezarri.
 - Komunetako ikonoen ordeiz irudi eta kolore ez-sexistak eta ez-estereotipatuak erabili.
 - Komunetako eta aldageletako pasagunetik oztopoak kentzea.
-
- Komun berriak diseinatzerakoan, konketak barruan sartu, emakumeen higienez pentsatuz.
 - Banakako komun itxiak eta atea behetik erdi irekia duten komunak txandakatu.
 - Segurtasuna, pribatutasuna eta intimitatea bermatzeko, komunak eta aldagelak erakundeko emakume eta gizonen proportzioa kontuan izanda banatu, eta bitarra ez den komun eta aldagela bat bermatu.

4. GELAK

- Mahaiak eta aulkiak sarrerako eta irteerako ateari begira jarri, ez bizkarrez.
- Langileen intimitatea bermatuko duten dei pertsonal eta/edo konfidentzialetarako espazioak eskura jarri.
- Gelak eta/edo bulegoak berdintasun irizpideei jarraituz banatu eta emakume erreferenteen izenekin identifikatu.
- Emakumeen presentzia bermatu, beti bat baino gehiago egon daitezen saiatuz.
- Mahaiak eta aulkiak irteerarik gabeko korridorerik edo korridore estuegirik egon ez dadin antolatu.

5. EKOIZPENA, ZERBITZUAK ETA BILTEGIRATZEA

- Biltegiak berrantolatu, horietan mugikortasuna eta ikusgarritasuna bermatzeko.
- Bilera kritikoetara banaka ez joatea jarduteko irizpide gisa sartu.
- Ordutegiak berrantolatu, joan-etorri gutxiko orduetan edo garraio publikorik gabeko orduetan sartzea edo irtetea saihesteko.
- Kanpoko zerbitzu bat ematerakoan, iritsi direla abisatzen duten emakumeen WhatsApp talde bat sortu.

6. TOPAGUNE BIRTUALAK

- Erakundearen WhatsApp taldearen funtzionamendu-arauak ezarri.
- Topaketa guztietan aurkezpen-erronda bat egitea adostu.
- Pertsona guztien intimitatea bermatuko pantailaren atzeko plano komuna eman.
- Bileretan parte hartuko duten pertsonen berri aldez aurretik eman.

Hasieran aipatu bezala, ez dago gure erakundeetan espazio seguruak bermatzeko ekintza bateraturik. Berdintasun-ibilbidea, espazioa, plantilla, jarduera eta enpresen kokapena askotarikoak dira, eta, beraz, ezinezkoa da berdin funtzionatuko duen ekintza bat diseinatzea. Horregatik, esku hartzeak pentsatu eta diseinatzerakoan, eta **aurretiazko ebaluazio gisa**, berdintasuna lortzen laguntzen duten neurriak direla bermatzeko, **BAI SAREAn txeko-galdera batzuk sortu ditugu**.

1. Emakumeen ahalduntzea bultzatzen du?
2. Emakumeen arteko aliantzak sortzen ditu?
3. Emakumeen autonomia sustatzen du?
4. Emakumeen egoera hobetzen du?
5. Beldurra eragin dezake?
6. Kontrola areagotzen du?
7. Norberaren espazioa eta intimitatea bermatzen ditu?
8. Zein enpresa-eredu bultzatzen du?

Ibilbide hau proposamen bat baino ez da eta askoz aberastarriagoa izango litzateke benetako adibide gehiagorekin. Beste enpresa batzuen ekintza berriak jasotzea gustatuko litzaiguke, **BAI SAREAn erakundeen artean jakintzak eta praktikak partekatuz elikatzen baikara**. Hau da sareko laborategia bizirik mantentzeko bidea.



•2024•

